

21. ALDIZKARIA - 2003ko otsailaren 17a

Ergoiengo udalerrian jaiotzak eta erroldatzeak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza

2002ko maiatzaren 8ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez hasiera batean onetsi zen Ergoiengo udalerrian jaiotzak eta erroldatzeak sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza. Dagokion iragarkia 2002ko 86. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, uztailaren 17an.

Jendaurrean egoteko epea iraganik, inork ez du erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu.

2002ko abuztuaren 29ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez behin betikoz onetsi zen eta, beraz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 326. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, bidezko da Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

ERGOIENGO UDALERRIAN JAIOTZAK ETA ERROLDATZEAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea. Ordenantza honen xedea da Ergoiengo Udalak jaiotza-tasa sustatzeko emanen dituen dirulaguntzen baldintzak eta araubide juridikoa arautzea.

2. artikulua. Onuradunak. Ergoienean erroldatu eta benetan bizi diren gurasoek hartu ahalko dituzte ordenantza honek araututako laguntzak, betiere haurra jaio baino 12 hilabete lehenagotik betetzen badira bi baldintza horiek. Onartutako dirulaguntza oro aita-amen alde, hots, batera bien alde, onartuko da.

3. artikulua. Jaiotza. Haur bat jaiotzearekin batera behar den dirulaguntza hartzeko eskubidea etorriko da. Erditze anizkoitzen kasuan, laguntzen eskala aplikatuko da haurrak jaiotzen diren ordenaren arabera. Umeren bat adoptatzen denean, ordenantza honetako laguntzak jasotzeko eskubidea sortuko da baldin eta umeak urtebetea ez duela egiten bada adopzioa.

4. artikulua. Erroldatzea. Ordenantza honetan agertzen diren laguntzak onartzeko ezinbesteko baldintza izanen da guraso biak Ergoienean erroldaturik egotea eta benetan bizitzea Ergoiengo udalerrira osatzen duten hiru Kontzejuetako batean, dirulaguntzaren iturburua den/diren haurra/haurrak jaiotzen den/diren momentuan. Halaber, erroldaturik eta bizilagun gisa inskribaturik agertu beharko dute laguntzak ordaintzen direnean.

Esanak esan, guraso bakarreko familien kasuan, jaio berriarekin batera familia osatzen duen guraso bakarrari baizik ez zaio eskatuko erroldaturik egotea eta udalerrian benetan bizitzea.

Dirulaguntzaren iturburua den/diren haur jaio berria/k Ergoiengo udalerrira osatzen duten hiru Kontzejuetako edozeinetan erroldatu beharko da/dira lehenbiziko aldiz.

5. artikulua. Zenbatekoak. Hauek izanen dira dirulaguntzaren zenbatekoak:

_Lehenbiziko haurrarentatik: 400 euro.

_Bigarren haurrarentatik: 700 euro.

_Hirugarren eta hurrengo haurrarentatik: 1.000 euro bakoitzarentatik.

Ordenantza hau aplikatzearen ondorioz Udalak aurrekontuko ekitaldi bakoitzean gehienez ere har ditzakeen obligazioek badute muga, aurrekontuan horretarako dagoen diru esleipena alegia.

Eskaeren kopuru handia dela eta, xede horretarako sortutako kontusaila aski ez bada, laguntzak halako proportzio batean murriztuko dira harik eta eskaera guztietarako iritsi arte. Nolanahi ere den, Udalak kontusailak handitzeko erabakia har dezake, egoki juzkatuz gero.

6. artikulua. Betebehar ekonomikoak betetzea. Hala gurasoek nola jaioberriek Ergoiengo Udalaren Toki Ogasunarekin izan ditzaketan betebehar ekonomiko guztiak eguneraturik beharko dituzte izan dirulaguntza ordaintzen den unean.

7. artikulua. Dirulaguntza onartzeko prozedura. Dirulaguntzaren eskaera Ergoiengo Udaletxean aurkeztuko da, dirulaguntzaren iturburua den/diren seme-alaba(k) jaiotzen diren urteko abenduaren 1a baino lehen. Seme-alaba abenduan jaiotzen bada, dirulaguntza eskaera hurrengo urteko abenduaren 1a baino lehen egin beharko du.

Guraso biek sinatu beharko dute dirulaguntzaren eskaera. Guraso bakarreko familietan aski izanen da jaioberriarekin batera familia osatzen duen gurasoak sinaturik egotea.

Eskaerekin batera dirulaguntzaren helburu den seme-alabaren edo seme-alaben jaiotza-agiria aurkeztuko da.

Udalaren administrazio zerbitzuek ondoko alderdi hauen gaineko egiaztagiriak ofizioz erantsiko dizkiote espedienteari:

- a) Gurasoak Ergoiengo udalerrira osatzen duten Kontzejuetariko batean erroldaturik eta benetan bizi direla egiaztatzen duen agiria, erroldatze eguna dakarrena.
- b) Dirulaguntzaren helburua den seme-alaba edo seme-alabak Ergoienean erroldaturik eta benetan bizi direla egiaztatzen duen agiria.
- c) Bai gurasoek bai jaioberriek Ergoiengo Udalarekin zerga arloko betebeharrak guztiak eguneratuak dituztela egiaztatzen duen agiria edo, edozein arrazoi tarteko, toki ogasunarekiko betebeharren bat bete gabe dutela egiaztatzen duena.

Udalak osoko bilkuran onartu beharko du dirulaguntza. Dirulaguntza ordaindu aurretik, gurasoek nahiz jaioberriek Ergoiengo Udalaren toki ogasunarekiko betebeharrak guztiak eguneraturik izatea baldintza izan daiteke laguntza onartzeko. Orobat, ordaindu aurretik, ordenantza honetan ezarri baldintzak betetzen direla bermatzeko balio duen beste edozein beharkizun ere ezar daiteke, dirulaguntza onartzeko eta iruzurrak edo gehiegikeriak oro saihesteko.

Udalak ordainketa zatitu edo atzeratu dezake, laguntza onartu eta gehienez ere hamabi hilabetetan.

8. artikulua. Araubide juridikoa. Ordenantza honetan espresuki arautzen ez den orotan toki araubidearen gaineko legeria aplikatuko da, baita administrazio prozeduraren gainekoa ere toki entitateei aplikatzen ahal zaien neurrian.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2002ko urtarrilaren 1etik aurrera seme-alabaren bat izan duten gurasoak baliatu ahal izanen dira ordenantza honetako dirulaguntzez, betiere onartuak izateko eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badituzte.

AZKEN XEDAPENA

1. Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.
2. Ordenantza honek mugagabeko indarraldia izanen du.

Ergoienean, bi mila eta biko abenduaren bian. Alkate udalburua, Olatz Berastegi Loiola.

Iragarkiaren kodea: a0300587